

Kontsulta-interfazearen egitura orokorra

Elkarren euskara-alemana hiztegia kontsultatzeko interfazea hiru ataletan banatuta dago: goiburua, ezkerreko zutabea eta informazio-gune nagusia.

Goiburua finkoa da, eta hiru elementu nagusi ditu:

1. Bilaketaren noranzkoa aukeratzeko estekak:
 - a. *EU -> DE*: Bilaketa euskaraz egin eta alemanezko ordaina lortzeko.
 - b. *DE -> EU*: Bilaketa alemanez egin eta euskarazko ordaina lortzeko.
2. Bilaketa-lauki nagusia: termino osoak zein termino-zatiak idatz daitezke, eta bilaketa-motorrak hiztegiaren sarrera guztien artean egokiena aukeratu du. Bilaketa abiarazteko, klikatu *Bilatu* botoian edota sakatu *Return* teklatua.
3. *Bilaketa alfabetikoa* botoia: hiztegiaren nabigazio alfabetikoa ahalbidetzen duen pantailara bideratzen du.

Ezkerreko zutabea, pantaila guztietan agertzen diren elementu finkoak daude:

Hiztegiaren gehigarriak atalean, hiztegiaren papereko bertsioan agertzen den informazio erabilgarria eskaintzen da PDF formatuan.

- *Hasierakoak* dokumentuan, batetik, hiztegiaren hitzaurrea, eta bestetik, sarreren konposizioaren eta erabilitako laburduren informazio lagungarria daude.
- *Eranskinak* dokumentuan, bi azpiatal daude: *Hizketan* izenekoan, egunero erabiltzeko hainbat esaldi eta haien itzulpenak daude; *Gramatika eranskina* izenekoan, gramatikari buruzko ohar erabilgarriak jaso dira, euskaraz eta alemanez.

Informazio-gune nagusian bilaketa arruntaren eta bilaketa alfabetikoaren emaitzak ikusiko dira.

Bilaketa arrunta

Goiburuan dagoen bilaketa-laukia erabilia egiten den bilaketa da, eta horren emaitza bikoitza da:

- Informazio-gune nagusian, bilatutako terminoarekin bat datozen hiztegi-sarrerak agertuko dira.
- Ezkerreko zutabea, hiztegian bilatutako terminotik hurbil dauden sarrerak proposatzen dira.

Adibidez, goiko bilaketa-laukian “horma” bilatuz gero, informazio-gunean “horma” hiztegi-sarrera agertuko da, bere informazio osoarekin (adierak, bakoitzaren itzulpena...), eta ezkerreko zutabea, hurbil dauden hitzak ikusi ahal izango ditugu (horma-armairu, horma-bular, horma-erloju, hormagarri...).

Bilaketa alfabetikoa

Bilaketa alfabetikoa aukeratu gero, hiztegiaren sarrera guztiak alfabetikoki erakusten dira, hizkiz hizki.

Informazio-gune nagusiaren goiko aldean, alfabeto osoa dago; horko hizki bat klikatuz gero, hizki horrekin hasten diren hiztegi-sarrera guztiak erakusten dira, alfabetikoki. Emaitza luzea denez, orrialdeka antolatuta dago. Orriaren goiko eta beheko aldean agertzen diren kontrol-laukiak erabiliz, zein orritara joan nahi den edo orri bakoitzean bistaratuko den sarrera kopurua aukera daiteke.